

Bertoari neurria hartu nahi izan diogu bertso munduan azken urteetan aldaketa esanguratsu eta sakonak gertatzen ari direlako, eta bereziki bertsolaritza (ere) badelako euskal gizarte eta kultura ulertzeko ispilu, eta, horrenbestez, pentsa genezake, baita gizarte eta kultur aldaketetan eragile ere. Eta horregatik osatu dugu bertsolaritzaren bueltako monografia hau. Iaz Bertsozale Elkarteak, Harkaitz Zubiri eta Xabier Aierdi soziologoaren eskutik, burututako ikerketa soziologikoa hartu dugu abiapuntu.

Zubirik ikerketaren gainean egin duen artikuluan, bertsolaritza soilik kultur sorkuntza eta jarduera gisa ulertu beharrean, gizarte mugimendu gisa definitu du, eta, horregatik, kontsumoa, hartzaile pasiboa eta atomizazioa kontzeptuei sozializazioa, parte hartzea eta artikulazioa aurre jarri dizkie bertsolaritzaren ezaugarriak zerrendatzerakoan, eta horiei esker erdietsi duela bertsolaritzak erdietsi duen lekua. Eta, bide beretik, horiei jarraituz bermatu ahal izango duela etorkizuna. Ikerketak bi egiteko azpimarratzen ditu etorkizuneko bidea irekitzeko: emakumeen presentzia berdintasun planora ekartzean asmatzea eta gazte belaunaldiaren sarrera egoki bideratzea.

Bistan denez, azken ikerketa kualitatibo horren ondorioetako bat emakume bertsolarien presentziak ekarri duen egoera berri eta tentsionatua da, eta horregatik eskatu diogu Jone M. Hernández García antropologoari ikerketa hartu eta generoaren atalari begiratzeke.

Hernándezek mugimendu sozialaren paradigmaren egokitasuna berresten du bere artikuluan. Baina, baita gogorarazi ere orain artean bertsolaritzaren izaera eta praktika ikuspegi androzentriko batetik izan dela definitua, eta «garaia dela izaera eta praktika hori biratzeko eta bere atzealdea ikusarazteko», genero-tentsioak kontuan hartzeko, alegia. Esan beharrekoa da, atzealdea ikusarazte horretan, hamabost emakume bertsolarien bizipenak jasota, itu-itan jotzen duela Uxue Alberdik berriki kaleratu duen *Kontrako ezarririk* liburu mugarriak (Lisipe, Susa, 2019), eta, aldez edo moldez, JAKINEN monografiko honen gainean hegan dabilela.

Hernándezek dio emakumeen absentsia presentzia gisa eraikia izan dela, hustasunaren presentzia gisa, 1432an profazadore haiei

publikoan kantatzea galarazi zitzaien unetik. Aipagarri da, Miren Amuriza, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbioren arteko mahai-inguruan, Lujanbiok nola aipatzen duen 'hustasun' horrek sortzen duen betekada sentsazioa, «emakumeak markatuta gaude eta asko okupatzen dugu», benetan gutxi okupatuagatik (lautik bat baino ez da emakumezkoa bertsolarien artean, ikerketaren zenbakiek diotenez). Hiru bertsolariek, nor bere buruaren baina baita ibilbide kolektibo banaren ordezkariatzat ere hartuta, ikerketak jalgitako zenbaki eta ondorioak euren bertso jarduera eta pentsamendutik igaro dituzte, teoriari bizipena jarriz, hitzari gorputza.

Gorputzean jarri du begirada Unai Iturriagak ere kontrazalean, lautik bateko emakume gorputzak lehen neutro zen gorputza orain gatazka eremu bihurtu duena.

Egunen gurpilean sailean, Jaime Altunak libertimendu abiatu berrien gaineko gogoeta egiten digu; Alba Garmendiak, berriz, kolonialismoaren ajeak dakarzkigu; eta, Itziar Ugartek, besteak beste, kultur politikez ari dela, hauxe ondorioztatzen du: horien atzean 'anaidia' (gizonen arteko aliantza idatzi gabea, Carole Patemanek *Kontratu sexuala* liburuan jasotzen duen adieran) dela denik eta kultur politika irmoenetako bat.